2.ⁿ URTEA

IBAIZABAL

66ⁿ GUEIA

GANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Jorrailla-ren 5ⁿ

Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean.
Guei Bakocha, Chakur chiki bat.

1903-ko Jorrailla-ren 5ⁿ

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.° derecha.

CHARTO IRAKATSIAK

Astelen arratzaldean emakume bi alkarregaz euskeraz berbetan egozala Bilboko Areatza derichon ibilltokian, urreratu jaken belarri-motz kirten bat esanaz issilltzeko ta gueiago euskerarik ez eguiteko; alboan egoan agure jaun batek adierazo nai izan eutsan, emakume arek eskubide osoa eukeela euskeraz berba eguiteko, eta erantzun eutsan gaztelar zibillizatuak, laster issilltzen ezpazan samea ebaguiko eutsala. Astakeria ta ollokeria batera dira guizon orrek eguin ebazanak; bada Bilbon millaka guizonak gagoz kalean euskeraz berba eguiten dogunak, eta ausse da ordua ondiño iñok ezer esan ezteuskuna, ta emakumakaz ta agurakaz aokadak esaten ibilli barik, garrerdiko guizonakana etorri bear leuke *valiente* orrek orrelango gauzakaz.

Badakigu asto bakarrak eztabela eguiten astaldea; eskara asiko emen chakurrenak esaten gaztelarrakaitik, euren arteko batek ori eguin dabelako.

Baiña orraitiño aitortu bear da gaztelar gueienak eztabeela entzuten euskerea gogo onagaz. Ezer esan ezarren, batzuk azikera onekoak direalako, beste batzuk badazauelako erantzuera gogorra oroan leikeela, igarten jake asarre dagozala euskeraz euren aurrean eguiten danean; prantzes edo ingueles bik euren izkuntzan baderagoioe, beste arpegui bat dauke gaztelarrak, asarrerik eztabe aguiri, gauza bidezkotzat dauke inguelesak ingueles eguitea; euskaldunak euskeraz eguitea ez.

Berez da zalea gaztelarra aurrekoa azpian eukiten, aurrekoa bera baiño guichiagotzat eukiten; baiña origora-bera, emen euskaldunak dauke charto irakatsita. Gaztelarrak ikusten dau euskalduna ardura andiaz ibilten dala euskeraz ez eguiteko bere aurrean; euskalduna beti dabill bildurrez ezer esango etedeutsen edo etedabeen beragaitik, euskeraz eguiten badau ulertuten eztabenen aurrean.

Ainbat bider (aldiz) guerta jat joatea trenean euskaldun lagunen bategaz emen Bilbo inguruan, eta neure lagunak erderara igues eguitea euskeratik, gueroian autu edo konberzaziñoan; sarri minutu batzuetan bera erderaz eta ni euskeraz ibilli izan gara, ta azkenean, ekiñen ekiñaz ekarri dot barriro euskerara; ostera bere iguesi erderara, ta nik eutsin euskereari ta abar, joko onetan bideketa edo *viaje* guztian. Beste aldi askotan oartu (advertidu) dot zelan erderaz berbetan asi direan euskeraz eragoioen guizonak, tranbian, trenean, kafean, kalean da abar, neuk beguirada bat eguin deutsedanean... neu erdalduna nintzalakoan.

Augaitik esaten eustan beiñ belarri-motz batek euskaldunak askozaz beguiratuago zireala katalanak baiño; ta nik diñot gauza bat dala beguiratua izatea ta beste bat bildurtia izatea, ta nire erechian euskaldunak arazo onetan ezer esango etejaken bildurr-gaitik eguiten dabeela erderaz.

Trena ta tranbia ta kafea ta ostatua ta onetariko tokiak, guztientzakoak, esan leike kalearen luzeera bat direala, ta beraz, euretan lagun bik edo gueiagok alkarregaz daukeen autua, beste guztiak zetan jakin eztaukeena, euki leikee eurak nai daben izkuntzan; orretan echako iñori okerrik eguiten. Iñok ezer esan ezkero erantzun lekio nire ezagun batek erantzun ebana beiñ ichas-ontzi baten:—¿Azikera charrekoak gareala nire lagun onek eta biok euskeraz derautsagulako? ¿Badakizu zer dan azikera charra? Beste bik alkarren artean darabillen arazoa jakin nairik ibilltea; zurí ezteutsu ardura gure autua.

Inguelesak, prantzesak, eta atzerritar guztiak orisse eguiten dabe eurak alkarregaz dabiltzanean, gaztelarrak eurak bere bai erbestean. ¿Eta gu izango gara orren beguiratuak gueure Errian bizi gareala?

Oituko baguendukez gaztelarren belarriak euskerea entzuten, eleukee asarre chikienik bere artuko; ta lengo eguneko astakilloa langoak bere gauza bidezkotzat ikusiko leukee Euskalerrian Euskeraz jenteak berba eguitea.

BLOA.

Urdailla eta gorputzaren beste parteak

Ao eta beguiak
oiñ eta eskuak,
urdaillarekin zeuden
chit asarretuak;
beguiak esan zuten
gu gau eta egun
or gabiltza jana non
ikusiko degun;
aoak zion berriz,
nere ortz-aguiñak
kamuzturik daukatzi
lan asko eguiñak;
oiñak esaten zuten
naiz ez izan gura
joan bear degu beti
jana dan lekura;
azkenean eskuak
zeuzkan nekatuak
beti betiko eziñ
jan-ala bilduak;
guztiak keja ziran,
urdailla bakarrik
zegoala lanikan
eguin gabetanik.
Eguiten dute junta
edo batzarrea,
zeiña izan omen zan
guztiz asarrea,
eta bukatzen dute
esatearekin:
—¡Ez degu guk gueiago
bear lanik eguin!
batak jan, besteak lan,
da erokeria;
urdaillak oi darama
gure lan guztia.
Esan zuten bezela
badaude gueldirik
bi egunean lanik
eguin gabetanik.
Asten zaie orduan
aitutzen indarra,
urdaillak barrendikan
eguiten du farra.
—¿Zer da au? esaten dute
¿Zer zaigu pasatzen?
Indarra piska bana
ari zaigu joaten.
Orduanche esaten
diote urdaillak:
—Lengo antzik ez ditek
gaur gure masaillak.
¿Nola naizute izan
ni gabe indarrik,
zuek bildutakoa
urtutzen badet nik?
¿Eztezute ikusten
ortz eta aguiñak
errota-arri guisara
daudela eguiñak?
¿Oiek chetzen dutena
nik dedala urtzen
eta guero guztiok
guerala mantentzen?
¿Ezpadet nik urtutzen
egunoro jana
zuen neke guztia
dala alfer lana?
orra nola egun bi
ozta igarorik,
zaudezten indar gabe
eta erdi illik.
Arrazoi au aditu
eta ondorean
guztiak sartu ziran
berrs batzarrean;
deitzen dute urdailla,
dijoa lasterka,
artzen dute erdian
emanaz besarka
eta esanaz:—Orain
diagu aitortu,
I bezin mutill latzik
eztek iñon sortu.
¿Nok esan zezakean
eskutuko lana
zala gorputzarentzat
bearrena zana?
Munduan guchiena
uste dan personak
eguiten oi dituzte
lanik bearrenak,
eta ikus dezazun
dala au eguia,
irakurri ezazu
aurrengo ipuia

ITURRIAGAK

CHIÑAKO ALBISTAK

¡Bizi bedi Jesus!

U-chang-fu-tik 1903-ko Zezeillaren 14.ⁿ

IBAIZABAL-en artezkari jauna: Baeidakie zuen irakurlak (neuk eztot irakurri baiña) zelan amar praille, gure Aita San Frantziskoren semeak urten guenduen joan dan urteko Zemendiaren 27.ⁿ Napoles-etik China-rako.

Albista ori irakurri dabenen bat egon leike gure barri jakin nairik; orregaitik uste dot ezteutsazula eguingo abegui charra eskutitz oneri

Lenengo amar egunetan ichaso ederra euki guenduen, urrengo amarretan ez aiñ ona, eta azkeneko zortziretan guztiz charra; Manilla aldietako ichasoa zan au azkeneko char au; anche guiñoazala, Santo Tomas egunean mariñeru bat jausi edo aizeak bota eban ichasora, eta joan zirean billa chalupa bategaz, baiña etzan gueiago aguertu. Ichasoa gogorra egoan ¡mutillak! ¡eta euri zaparrada bat bai! galdu zanen billa ebizanak bere galduko etezirean bildur nintzan ni.

Alan da guzti bere, beste guertaera barik eldu guiñean *Shang-hai*-ra, abenduaren 27.ⁿ Au da Chiñako portu nagosietariko bat. Onaguiño ekarri guinduzan ontzia emen ichi ta beste chikiago baten eguin guenduzan ondiño beste lau eguneko bideak, *lan-tze-kiang* izena daben ibai aundi

baten gora. Ibai au muduan dagozan andienetatik irugarrena da.

Azkenez Urtarrillaren 3.ª eldu guiñean gure obispo jauna dagoan urira, aun da, *U-chang-fu*. Amarrotatik iru emen guelditu guiñean, da beste zazpirak ondiño emendik bere aurrera joan bear eben errekaz erreka ta mendirik mendi; batzuk ogueien bat eguneko bidean, beste batzuk berroguei edo berrogueta amarrekoan.

Emen eztagoanez trenik, ez kocherik, eta bai erreka asko ta aundiak, chalupetan eguin bear izaten dira joan-etorri eta ara edo ona ostera guztiak.

Emen gueratu guiñean irurok, berton egon gara oraiñ arte; baiña oraiñ bagoaz gu bere bakocha erri banatara, emengo berbetea ta ekanduak ikasten, beste misioneru zar baten laguntasunaz; guero ònen menpean sei illebete edo urtebete eguinda, bakarrik asteko jentillak federa biurtu ta zelan kristiñau onak izan bear daben irakastera.

Kristiñau guichi dago emen ondiño; euneko bat bere ez, millako bi edo iru edo alan. Gure obispo jaunak bere kontura daukan errialdea, ia Españiaren lauren baten bestekoa da, eta dagoz berton guichi gora-bera bederatzi milloe lagun; oneetatik ogueien bat milla baiño eztira kristiñauak, beste guztiak jentillak, au da, deabruaren menpean dagozanak eta berari jarraitzen deutsenak. ¡Saill edo arlo ederra! ¿Ezta alan? Badaukagu bai nun lan eguin sendo, gueuk nai badogu; bada bederatzi milloe oneek federa biurtzeko ezkara ogueta amasei ogueta amazortzi misioneru baiño.

Jaungoikoaren laguntasunaz gueldito guediro zerbait eguingo dogu; dana dala, gueuk al doguna eguiten badogu, nai ta asko biurtu federa, nai ta guichi, bardiñ izango da gure saria. Alan da guzti bere, au irakurten dabenari eskatzen deutset mesedes erregutu daiela gugaitik, batez bere Meza santua esan edo entzuten dabenean, Andra Maria bitartekoz ipiñirik, bada kristiñauen erreguak indar aundia daukee Jaunaren aurrean, beragandik doai edo grazia ugariak guganatzeko ta emengo jentearen biotzak bigundu ta federa ekarteko.

Emen gagozan misioneruetatik, erdiak inguru gara ortikoak edo Europatarrak (gueienak Italiatarrak) eta beste erdiak bertoko semeak. Oneetatik gueienak izan dira emen Urtebarriz, da alan ezautu dodaz.

Emengo Urtebarri ezta beti bardin edo beti egun batean, gurea leguez; bada oneek iretarguiaz (illarguiaz) dabiz. Orregaitik gure urteko lenengo iretargui barria da oneen Urtebarri. Aurten Urtarrillaren 29.ª izan da. Chiñatarrentzat jairik aundienak dira Urtebarri, ta andik amaboskarren eguna, au da, lenengo iretarguiaren betea. Chiñako ekanduak gureetatik desbardiñ aundiak daukeez; emek guizonezkoak jantzi luzeakaz eta emakumak prakakaz dabiz; ta alan beste gauza asko.

Urrengo baten, artezkari jauna, bialduko deutsudaz albista gueiago; gaurko naiko dira or joatsuzanak. Orraztu eguizuz zeuk ondoen uste dozun eran, bada ezta miraritzeko gauzea amabost urtean Euskalerritik kanpoan dabillenak euskera ez ondo jakitea (1).

Agur, beti naz zeure adiskide:

AKORDAGOITIA.

¡GORATU AITA SAN JOSEPE!

Naiz eguzkia izan arguia, arguiago da
Zuri darizun arguitasunen errekea,
Mundu guztiak dazau arguiro bere indarra,
Dala arimen lagun ongarriz eskerguea;
Zure zaletar, otseiñ, jarraillak alan daroe
Biotza eguin birtute-loren abiea,
¡Baneuka euren baratzea!
¡Ze zoriona gaur nirea!
¡Ninduke Josek bai semea!

Bada ezpadak lañotuarren zure burua,
Mingoztasunak imini miñik tint biotza,
Baña ¿ez ekartsun zerutar batek bere orduan
Orregaitiño miñ orren ordez baita poza?
¡O zeinbat aldiz zentzuzun Jose naigabetua,
Gañtar egari galai galanten berbal-otsa?
¿Oso leun leuna ez mingotza?
¿Guichik dabena beian goza!
¡Nork lentzukean euren boza?

Goian ederguei ederrenetan ederren zara,
Justuen kanta kantagarrien kantagueia,
Elizearen Aititan Aita, Aita-lenena,
Nok jarri daben zure kerizan gaur masteia,
Atsakabetan gure poz, ezti, atseguin gozo,
Illtean ondo illteko onguilla nagusia,
¡Eltzean une aiñ larria¡
¡Ez daidan topau galmendia!
¡¡Eukizu nigaz errukia!!

Ama Eleiza Santuak zaitu Jaubetzat artzen
Goi gora jaso eta buruan arotuten,
Jose zuzena zarealako, guizon guztiak
Goratasuna baño besterik ez emoten;
¿Aita-ordetzat arturik, baña noraño zaitu
Belengo Jesus Jaungoiko Kristok goratuten?
¡Bidez deutsazu aguinduten!
¡Nor beartzen dan umilduten!
¡¡Zendualako mantenduten!!

FELIPE ARRESE TA BEITIA

Ochandion 1903-ko Martian.

Hijinie ta Ijinanzia (2)

—¿Zer berri dakatsu chomin Bergaratik?

—Berri onak dakazkit, Praisko, guziz onak; albistaria irakurten zegoan bizarguintzan guizon bat españ gañeko bizar puska edo biboteakin, eta arek esan du laister zabalduko dala mundu guzian Hijiene, Higienie edo Hijienio, edo modu orretako osasun guzizkorenbat dakarrena, eta gobiernuak edo Españiako kargudunak aguindu omen dute Hijinero orrek aguintzen duena guziok eguiteko, eta gueiago gaisotasun eta eririk eztala guizonen artean ikusiko. Nere iritzian, Matusalenek baiño urte gueiagorekin zaartuko guera gu.

—Beraz osaguille bearrik ere eztegu gueiago izango, eta guizon oiek bear ezpadirade ¿zer burubide artuko otedute?

—Oientzat ere asmaturik egongo da bizibidea; bada nik aditu detanez, gure auzoetako eta bazter guzietako eskola-maisuak eskubide edo titulo bagueak diralako kentzera omen dijoaz, eta osaguilleak nola diran estudio edo jakitunak, oguibide ori oientzat izango da noski.

—¿Euskaldunak izango otedira irakasle berri oiek?

—Nik aditu dedanez, Gutierrez ta Albades dira bi etorteko asmuetan daudenak, eta lenbiziko ori zerbait guztatzen zait euskeraren antza piskat duelako; bada nik uste dedanez Gutierrez-ek esan nai du Guzia errez irakatsiko duela, eta ori ondo etorriko da gure umeak errez ikasteko.

—Guzia errez-en lekuan guziz errea esan naiko du, ta obe izango degu orlako errechin edo erretzailleak ez artutzea echean; bizi bitez Mira-andas arutzian, eta Albades edo Albada ez ekarri gure euskera galeraziko digun guizonik.

—Gure ikasteguietan, albistariak dionez, gure umeak ikasi bear dituzte *gra matraka*, *geo matraka*, ta orretariko *atraka matrakak*.

—*Matraka* klase oiek aste santurako izango dira.

—¡Bai zera! oiekin ikasten omen da izarren, eguzki ta illarguiaren neurriak, zer ibilbide duten ta zenbait bide dagoan gure leku onetatik aiek dabiltzan tokira.

—Ibilbidea edozeiñek daki; Elosun irten eta Elgueta aldian eskutatu, baiña neurri kontu ori jakitea ona izango da, gu aruntz goazenean zenbat jan gauza eraman jakiteko.

—Azkenik Ijiñe... Ijiñe... eztakit asmatuko dedan... ¡a!... ¡bai! Ijinenzia edo Ijirenzia ikasi bear omen dute.

—¿Zer jira modu otedira orrek?

—*Comendiantien* guisa sotz puntetako jira-birak.

—¿Nork edo zeiñek erakutsi?

—Maisu berriak.

—Obe leukee balekie eurak gure umeak bezela ibilten sotz puntarik sotz punta; keisak eltzen diranean eztute irakatsi bearrik jizango, choriak bezin bizkor ibilliko dira adarrik adar. Aratekumeai ere eztiote olloak igarian irakatsi bearrik, eta ur ertzean olloa klok eguiñaz egon oi dan moduan, maisuak egon bearko du arbola ondoan.

—Nere iritzian ikastecheak eztute teillaturik edo goirik bearko, gabaz izar illarguiaren ibillera, ta egunez eguzkiarena ikasteko.

—Eguia da, ta gañera aizea nundik datorren, odeiatu ala oskarbi dagoan, ta euria dan ala aterri dagoan ere artara obeto igarriko diote.

—Bai neronek ere
lengo egunian,
egurretan joan da
Kiruta gañian;
euri jasa aundiak
eguin zionian;
erropa sikurikan
ez nuan soñian;
burutikan sartuta
irten zan oñian,
ez igarri banion
bear zan sasoian
arguitu nitzan anche
Hijienen premian,
pozik nago orduan
ill ez nitzanian

GREGORIO SASIETA.

Bergaran 1003-ko Aprillaren 1.ª

URTE ASKUAN

(Nere lagun maite Gabriel Echebeste-ri)

Asteazken arratzeko
bederatzietan
jarri dizute alaba
berria eskuetan
ala irakurri det
gaur nik zortzietan
norbaitekin bialdu
didazun tarjetan.

Atseguin aundia det
albiste orrekin
asko pozten naiz beti
lagunan pozakin;
oraiñ okerrikanen
guertatu eztedin,
panparroikeririkan
ez andriak eguin.

Ta urte askuan bizi
dedilla alaba
onrratuaz Jainkoa
aita eta ama,
beti izan dedilla
umilla ta ona,
au da zure lagunak
opatzen duena.

ENRIKE ELIZECHEA

1903-ko Marchuaren 26.ª

Ondarroako arrantzaleen kontuak.

Santander-en joan eizirean anai bi ango ardantegui batera zerbait jateko ustetan, baita bere emon eieutsen eurak eskatu ebena ta azkenez eskatu eben kontua, ta *dos pesetas cincuenta céntimos* esan eutsen: berba onek entzunaz bakarrik dardar eguin eben alkarri beguira.

—*Hermano* (berba au mariñelen artean bere ezaten dabe bear baiño gueiagotan) ¿zeinbat eteda 2,50 ori?

—Nik eztakit; ibilli izan naz Santander-en, Santoñan, Castron, eta beste leku askotan, baiña egundo neure bizian eztot entzun olako berbarik.

—¿Berrogueta amar esan nai etedau *cincuenta* orrek?

---

(1) Neuk irakurri dodan atseguiñagaz irakurriko dabeela uste dot gure irakurlak Chiñako biotzetik euskaldun zintzo batek bialduriko eskutitz polit au. Eztauko, adiskidea, orraztu bearrik zure lanchu onek; ezagun da chit maite dozula gure euskerea. Maite dana, biotzaren erdian doa noberagaz aldo gustietara; orregaitik zuk oztozu aztu ez aztuko zeure gurasoen berbetea; sekulako da zugaz. Maite eztabenai Euskalerritik urton barik aztuton jako. ¡Zoinbat dagoz zoricharroan onetarikoak!

(2) Higiene y gimnasia.

—Berrogueta amar erreal ezin izan leike ; jan guichi eguin dogo, edan sei kuartillo ardao besterik ez, eta ondiño beste lau edateko bere ezkara bildur.

—Ez, ezkara bildur orretarako, baiña bai kontua pagateko.

—Artuizu nasaitasun gueiago; oguerleko bat badaukat eta eztaukagu iñoren lotsaririk, eta ondiño obeto jakin bear dogu zer diru dan.

—Eta oguerleko bat baiño gueiago dala esaten badau?

—Eztaukagula gueiago ezan bear.

—Bai, jabeak ulertzun badigu zuk ori esanda.

—*Oye, señor, cuenta.*

—*Ya les he dicho á ustedes que 2,50.*

—*Hermano*, gueure buruak ikusiko doguz emenche preso, chiñelen bati abisauko deutsa, ta chalupako lagunak bere estutuko dira nun etegarean, da zer edo zer eguin bearko dogu gaba eldu baiño len, bestelan leku charrien gagoz. Emen daukadan oguerlekua emon bear deutsat, eta zer diñoan entzun eguingo deutsagu.

—Bai, *hermano*, oba dogu emetik joan gueure chalupara.

—*Oye, toma duro.*

Artu eieban oguerlekoa issillik, eta beste amar erreal atzera emon.

—*Hermano*, gure 2,50 orrek amar erreal izan bear dau, ¡ezkara ainbeste denporan charto egon bildurrez! goazen oraiñ kapera, ta lengo bilduRRak kendu bear doguz, ta amar erreal orrek gastautakoan, orduanche joango gara lotara. ENPLA.

ZARAUZTIK

Artezkari jauna: Gure auzo erri Guetarian ere erdaraz errezatzen omendute errosarioa. Erri guzia da euskara-duna, bai eta gueiena erdaraz eztakitena; ¿zergatik edo norgatik eguiten dute ala? (1)

Gaur goizeko 4 ½ tan ill da andre Melchora Beriztain, gure aguazillaren arreba; Jaungoikoak bere erreñuan arki dezala. Samin onetan lotzen guera bere anaiakin, modu berezi batez Martin gure lagun maitearekin.

Emen eguin da pregoi bat alkate jaunaren aguinduz gure euskara maitean, (eztago zer esanik Zarautzen dana alaeguiten dala). Ara emen pregoia.

Alkate jaunak esaten du nola Diputazioak bigaldu duben Guipuzkoako errietara aguindu bat nekazarien onerako; nola beren ona danentzat baitan, ara zer esaten duben aguindu orrek. Askotan guertatzen zaio nekazariari bere ustez erostea ongarri onak ez ala izanik, eta Diputazioak artu du asmoa berak ekartzea ongarri artako diranak; onetarako nekazariak bear dute eskribitu erriko echean zenbat eskatzen duten. Badira artoarentzat, udarbientzat (erremolacha), ala berean gariarentzat, eta uste du Diputazioak entzungo dutela nekazariak eguiten zaioten dei au, lenengo da beren onerako, ondoren danontzako.

Ondo dakizute zenbat alegin eguiten duen ganadu kasta edo enda onak zabaltzen gure Diputazioak, ala berean nai du jarri bere arreta beste alorta edo kosecha mota danetan.

Badira erri onetan eskribitu diranak, eta uste da nekazari gueienak eguingo dutela eskamena, zergatik izango diran ongarri mineral jatorrak,

Au da eguin dan pregoia gure izkuntza itzalgabean.

Agur, urrengo arte.

JENARO ELIZONDO.

Marchoaren 31.n

(1) Ori izango da Gretaritarrak ateratzearren euskerazko *salvajismo*-tik gaztelarren *zibilizaziñora* sartzeko. Uste zan baiño lagun gueichoago dute gure artean Ramanones elbarrituak, eta Unamuno ichukiak.

GUERNIKATIK

Artezkari jauna: Lengo baten entzun neban emengo Poralen nagusiak mutill zarkote batzuri aguindu eutsela avemarietarako joan daitezala euren echeetara, ardaneche ez beste lekutan egon barik.

Gurasoai lotzarik artu gura ezteutsenak izango diralakoan nago, bestela ardura ori, poralak baiño len, gurasoak artu bear dabe. Edozetara bere ondo dago aguindu ori, batez bere beteko balebe guztiak zar da gazte, guizon da mutill, ze orduan gaztechuak eleuke ikasiko bide arantzaz beteriko ori. Zenbat mutill gaztek, gabeko egoerakaitik, ikasi ta eguiten dituez egunez egundo eguingo eleukezan gauzak. Illuntasuna gueienean izan doia laguna, edozetan iñarduteko.

—

Poru-ko errian, Achagako kai edo portua esaten deutsen tokian, zurezko *pailebot* bat eguiten asi dira Cadiz-tik gatza ekarteko (¿emen onetan premiña dagoala uste izan etedabe?) eta beste olango gauzak baterik bestera erabilteko. Norbaitek basoetatik zurak ekarteko eragozpena ugari ipinten eideutse.

Lenago bere, Poruko beste kai Aldeipekoa esaten deutsen lekuan neure gomutan eguin zituezan gabarroiak. Iñoz eztot entzun Achagako kaian orretarikorik, ez besterik eguin danik. Orain asi eidira an, ibaia zakonago eta zabalago dagoalako andik berantz.

—

Batzuk diñoe laster izango dala erramata, besteak ostera orain autezkinde edo boto egunak datozala, eta len bere orretariko gauzak olango sasoietan sarri entzun direala, eta erramat ori eguin arte eztoiazala ezer sinistuten.

Orretarako, gauza askotarako leguez, bear dana da, dirua ugari... eta ¿nundik zuzendu? Batzuk diñoe lendik Diputaziñoak aguinduta daukanen ganekoa Madrill-dik etorriko dala; baiña andik datozan egunariak diñoe Españian dirua urri dagoala.

Goiko eta beeko ibarrentzat ondo

— 28 —

Ikasguin bat chendorrari betegarria sartzen, eta iru edo lau aren lagunak, ari ziran pagadi barrenean subill guertatzen beste bat sututzeko.

Chendorraren garaiko aldean ikusten zan echabola bat, iru pago adarrekin eguiña eta garoz azpitik eta zoiez gaiñetik estalia.

Ikasguin aietako bat joan zan echabolara, zirri bat eguin zion echabolako ate muturrian zegoan suari eta non zegoan gal gal gal egosten topinkada bat baba, jarri zuan talo burnia berotzen eta botarik ganbela batera ura, gatza, eta arto iriña, asi zan zaplaka orea guertatzen taloak eguiteko.

Abek erre zituanean, jarri zituan eskuak tronpetan guisa eta euu...u...u eguin zuan deadar luze bat. Bai, erantzun zioten lagunak, eta utzirik aizkorak pago guerrietan sartuta, abiatu ziraden echabola aldera, batak guerrikoa lotu, besteak zintz eguiñaz.....

Jan zituzten baba eta taloak, erre zuten pipada bana, baiña ala ere iñor etzan muguitzen. Ilundu zuan izarrak aguertuaz eta ari ziran ikasguiñak chuchu muchu alkarri belarrira itz eguiñaz; ezagun zuten soseguz etzeudela.

Guizon bat azaldu zan bideak zear eta asi zan pagadia gora echabola aldera; ura ikusi zutenean jaiki ziraden ikazguiñak.

—Guazen—esan zuan guizon arek—eztezagun denborarikan galdu; zergaitik nik goiz joan nai nikek echera iñork gauza charrik sospecha eztezan.

—Guazen ba—erantzun zuten ikazguiñak.

—¿Ezer badaramazute?—esan zuan guizonak.

—Ezta ezercho ere...

— 25 —

tzeko. Alako batean, tarra-tar-tar-tar eguiñaz banatu zan ontzi zarra, eta nerekin zijoazen lagunik gueienak izkutatu ziraden ichasoaren barrenera gueiago ez azaldutzeko. Nik orduan agur eguiñaz mundu oni, artu nuan eskuetan, echetik atera nintzan besperan nere ama gaisoak lepotikan zintzilika jarri ziraden Ama Birjiña Karmengoaren eskapularioa, eta biotz guztitikan mun eguiñaz eskatu nion gorde zezala konbeni bazan nere bizia, ez neregatikan, baizik nere guraso maiteak izango zuten naigabe samiñagatikan, eta salto eguiñaz ichasora, eldu nion ur gaiñean zebillen zur zar bateri.

Zur onen laguntasunaz piskaka piskaka nijoan guerturatzen ichas basterrera, baiña nere indarrak aitu ziraden eta banijoan beguiak betiko ichitzera ikusi nituanean neregandikan ez urrutira iru guizon erdi larrugorrian chalupa chiki batean, euren bizia galtzeko zorian neregana zetozela; zerura beguiak jasoaz eguin nuan azkeneko aleguiña eta ozta eldu nintzan chaluparen saiatzera. Artu ninduen besoetan kristau on aiek eta andikan laster jarri nuen nere oiña aspaldi ikusi ez nuan laur legorrean. Baiña ¡zein errukigarria! Nere besoak zeuden etenik eta nere eskuak danak odolduak, ¿utirik egoteko gauza ez nintzala. Sekula, bear bezela, maitatuko eztitudan guizon aiek eguin zuten angalla bat, etzan ninduen bertan, eta basorik baso eldu guiñan erri chiki batera, nun euren ume bat banintza bezela, eta ama batek bezin maitasun bigunarekin sendatu eta zaitu ninduan. ¡¡Jaungoikoak sartu ditzala zeruan erdi erdian aiñ biotz ederreko guizonak!!

etorriko litzake ibai barri ori, uiola garbi kenken badeutse, uiol orrek kalte andiak eguiten dituelako; ezta erraz izango, goitik bera ur asko eta betik gora marea gogorra datorrenean.

Ibarragaz bakarrik gueratuten badira, orduan ondo etorriko da Porua ta Muruetako errientzat, zegaitik uiolen gunak, iitzak edo iatzak onduko dituan. Jarraituten badabe Achagatik aurrera orduan iatza guztia lorrindu bear dabe ta Poru-Muruetako eche askori kaite eguin bear deutse azpigarri eta azkagarriekaz. Eguia esateko, iatza orretan gueratuko litzakezan lurrak, onak izango litzakez echeak eguiteko, bertatik ikusten dalako asi uri onetan eta Mundakara artekoa.

Gauzai asierea emoteko bidebarria eguin bear leukee lenengo asi Arabietan eta Achagara arte, ateraten dala errez ganera beste bidebarri bana Ajanguiz-ko eleizaldera, Porura, ta Kortezubira, lengotik asita, Uste dot amaika auzoteguik premiña guichiagogaz Diputaziñoari eskatu deusatzala bidebarriak. Aitatu dodan unean ¿zeinbatek, burdirik eroan ezin dabelako, etedau ekarten bizkarrean edo astoetan asto, gari, arbi, bedar eta beste gauzak, eta eroaten satzak era orretan? Bestetik, Lekeitio, Ea ta Elanchobek eta beste erri batzuk bere iraabaziko leukee, ze orduan eleukee zetan joan Lendan gora. Baita onako bere izango litzake ona, ibilltoki ederra izango litzakelako.

Agur urrengo arte.

A.

Epaillaren 31.n

Berso zarrak

(Aldrebeskeriak)

Guizon bat ikusi det
irureun urtetan
mariñel dabillela
ontziko soketan
chalupak zapat orde
zituen anketan
arren aitona berriz
ichasora urketan.

Ichasoan ai dira
arbolak aldatzen
anka motzak badaki
ederki korritzen .
ichuak ikusi du
echea erretzen
mutua deadarka
jendeari deitzen.

Ara non sartu dira
amalau nabio
zortzi konfitero ta
sei botikario;
bosna kintalekuak
zortzi armario,
guizon batek pultsuan
bizkarrera igo,
arrazoi orri kontra
¿nork eguingo dio?

Arraultza bi jateko
zazpi arto jaki,
chanchangorri batenak
sei libra tripaki
baiak iriña eio,
errotak iralki,
labanak erre eta
labeak ebaki,
orren madria zer dan
Senpelarrek daki.

† SENPELAR.

ITAUNE BAT

Lengo egun baten azaldu euskuen urrengo guertaera au:

Begoñan eidabiz abadeak dotriñea irakasten garizuman eguin oi dan leguez; umeen artean aurkeztu eizan neskatochu bat, Sandroke inguruko baseche batekoa, erderaz tautik bere eztakiena, ta ezan eiutseen bere gurasoak irakatsi eioela, bada Begoñan erderaz bakarrik irakasten ebela dotriñea.

Ezkenduen sinistu gura, ta azaldariak baieztu eban barriro; baiña ain gauza ezaiña derichogu ta sinisgacha eze, ezin dogu ipiñi ziurtzat, eta ezbaian, Begoñan daukaguzan IBAIZABAL-en euslari edo *suscritore*-ai itanduten deutsegu- ¿Eguia da?

IZKIRIMIRIAK

—Eztet nai Domingokin
ama, nik ezkondu,
inpernurikan danik
sinistu nai eztu,
ta ez liteke iñoiz
mutill ori ondu,
bada denak guezurrak
dirala esan du.
—¿Inpernurik eztala
al dio Domingok?
sinistuko duela
ezkontzian diot,
bada erakutsiko
diogu guk biok.

—

Bi itsu zeudelarik
bide bazterrian
limosna eskatuaz
Jaunan izenean
guizon bat guelditurik
beraren aurrean
peseta bana zioten
jarri beatz-artean.
Jaun on ura andikan
aldendu zanean
dio batek besteari
boz chit issillean:
—Adiskide, jaun ori
¿ezagutzen aldek?
—*Ikustez* bai aspaldi,
chit maiz pasatzen dek.

—

Bi guizon ari ziran
kalian erdian
oso gaizki izketan
aserre bizian;
bildu zan ingurura
emakumez milla
eta andikan laster
ere aguazilla.
Onek galdetu zuen
aserre zer zuten
eta bi guizon aiek
erantzun zioten:
—Onek esan dit neri
naizela iltzaillea.
—Ta onek berriz neri
diru-kentzaillea.
—¿Eta orrengatikan
aserre orrela?
Pasa emendik, pasa,
echera berela.....
¡juste det chit arrazoi
biok dezutela!

ELIZECHEAK.

LA EDITORIAL VIZCAINA derichoa moldaguintzan
Gran Vía, 26 eta Ledesma, 13.

Piskabat indartu nintzanean biotzaren erditik eskerrak emanaz nere onguilleari, joan nintzan nere osaba bizi izan zan errira. Ikusi nituan osabaren testamentarioak eta..... baiña eztut nai zuen biotzik zauritu, guizon gaizto aiek neri esan eta eguin zizkidaten gauzak ezanaz.

Esan ziden guezurretan nebillen bat nintzala eta burla eta farra eguiñaz bultzaka bota ninduen echetikan. Baiña guizonen artean billatzen ezpadegu justiziarik gure Jaungoikoak beguiratuko du guregatikan. Ala ba, esperantzarikan ez galdu, eta bien bitartean poztu zaitezte besterik ezean jakiteakin bizi naizela guztion onerako bear eguiteko!

Ikusi ditut Anjelen adiskide batzuk ere, eta euren artean euskaldun bat, zeiñek nai didan anai batek bezela. Danak esan dire lagunduko didatela aleguin guztian.

Denbora askocho bearko dut gauza abek garbitzen, zergatik testamentarioak gogortuak daude guri ostutako armakin, eta diruak emen, or bezela, ate asko idikitzen ditu.

Uste dut oraingo eskonduak egongo dirala Anjel eta Mikaela, eta eztago zer esanik biziko diradela aingueruak bezela, Don Jose eta andra Joseparen konpaiñian; egunero gogoratzen naiz guztiokin.

Eskumuñak Simon uztarguiñari, Echeberriko Mariari eta nerekin oroitzen dan guztiari, eta amak segui dezala erregutzen oi duan bezela Ama Birjiña Piedadekoari, ni gorde nazan orain arte bezela.

—¡¡Ai nere sabeleko puska!!—esan zuan Praiskak eskuak gurutzatuaz—¡Zenbat estutasun, eta zer guer-

tutikan ikusi duan eriotza nere seme maiteak! Baiña Ama Santisimak gorde du.

—¡Balio izan dionagatikan!—esan zuan Pachik.

—¡¡Pachi!!—esan zion aitak sekula baiño aserreago—¡oiek eztirade zure gurasoetatikan artu dituzun lezioak!

—¡Gu errukiñak!—esan zuan Praiskak negar eguiñaz—ume onessek kendu bear digu bizia eta bialdu bear du bere burua kalabozon batera.

Nola Anjel zegoan jaikitzen etzala eritu zan ezkero, sarri bialtzen zuten Pachi aitak eta amak aren berri jakitera. Pachi zan gueroago eta zakarragoa, eta ainbeste naigabe ematen zituan echean egunero bere gurasoai eze, asi ziran osasuna galtzen beldur izateko moduan.

¡Beste gauzarik zan Pachi apaizaren echean! Izutuak zeuden aren arguitasunarekin eta izketa legunarekin; eta andra Josepa eroturik Pachi ala ikusita guertatu oi zion makiña bat mokadu gozo eta erakusten ziozkan, nun eta nola zeuden echeko gauza guztiak.

V

San Miguel egun batean, eguzkiak Irimo gaiñetikan igues eguiten duan sasoian, kee beltz mordo batek irteten zuan Korosotikan Anzuelara datorren bideaz gaiñean zegoan pagadi batetikan, non señale zan chendorren bat zegoala egosten. Eta ala zan izan ere.